



Gloria Expósito Álvarez

Espainiako Liburutegi Nazionalako Prozesu eta Zerbitzu Digitalen zuzendaria

Ingeniaritza aeronautikoa ikasi zuen Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan. Enpresa pribatuan ekin zion jarduera profesionalari, sektore aeroespazialean, eta agentzia publiko (ESA) zein pribatuetarako nazioarteko proiektuen garapenean parte hartu zuen. 2017. urteaz geroztik Estatuko Ingeniari Aeronautikoen Taldeko kide da. Sektore publikoko ibilbide profesionala, berriz, Aireko Segurtasun Agentzian hasi zuen, software eta sistemen garapenaren esparruan.

2022an Liburutegi Nazionalan sartu zen, Informatikako Koordinatzaile gisa, eta software garapenaren, komunikazioaren, sistemen eta zibersegurtasunaren alorreko proiektuak zuzendu ditu; beraz, BNEaren lan ildo gehienetan parte hartu du. 2023. urteaz gerotik, BNEko Prozesu eta Zerbitzu Digitalen zuzendari kargua du. Zuzendaritza horretan, hainbat alorretako proiektuak egiten dira: digitalizazioa, zaintza digitala, berrikuntza, datuen berrerabilera, katalogoaren kudeaketa eta barneko eta kanpoko aplikazioak, webgunean, lege gordailu digitala, espainiar webgunearen artxiboa, zenbatze- eta biltegitratze-sistemak, softwarearen garapena edo zibersegurtasuna. Horrez gainera, gaur egun Adimen Artifizialaren garapena bultzatzen ari da, eta LLM proiektuetan parte hartzen ari da maila nazionalan, BNE baita gaztelaniazko testu-datuen iturri nagusia.

Estrategia digitala Espainiako Liburutegi Nazionalan: erronkak, desfioak eta aukerak

BNEren helburua da Espainiako ondare kulturala zaintzea, gordetzea eta hartarako sarbidea bermatzea. Historikoki, funts bibliografiko eta ikus-entzunezko “fisiko” batek osatzen zuen ondare hori, eta erakundearen gordailuetan katalogatzen eta gordetzen zen. Edonola ere, aro digitalean sartuta, BNEk zabaldu egin du ondareari dagokion interes-esparrua, eta bertako bildumak jadanik ez dira solik fisikoak, eta bilduma digitalak ere biltzen ditu. BNEren bilduma digitala bi jarduera-ildotan oinarritzen da: alde batetik, funts fisikoetan egindako digitalizazioak; beste aldetik, lege gordailu gisa sartutakoa, argitalpenen bertsio digitalak eta digitalki sortutako edukia barne. Gainera, “ondare” kontzeptua zabaldu egin da, halako eran non ekoizpen musikalak eta ikus-entzunezkoak, webguneak, gizarte-sareak edo bide-jokoak ere biltzen baititu, eta gorde egin behar dira eta publikoaren eskura jarri, hortaz.

Horren guztiaren ondorioz, ondare digital handia dago, eta ahalegin handia egin behar da plangintza egiteko, biltegitratzeko, gordetzeko, zaintzeko eta segurtasunez sartzeko, ondare “fisikoari” begira behar denaren oso bestela. BNEk gaur egun dituen erronken artean daude,

bilduma digitalen tamainaren kudeaketa, haien egiletza, zibersegurtasuna eta datuetarako sarbide segurua (bai datuaren segurtasunaren ikuspegitik, bai jabetza intelektualaren errespetuari dagokionez). Gainera, azken urteetan Adimen Artifizialak izan duen goraldiarekin, BNEren funts digitalak interes handia sortu du hainbat azterketa-taldetan (publikoak zein pribatuak), batez ere hizkuntzaren ereduaren garapena, AA generatiboaren edo testuen eta datuen meatzaritzarako eta/edo horretan oinarritutako tresnak aztertzen dituztenen artean. Beraz, erabiltzaile izango direnentzat corpus dokumentalak eraginkortasunez deskribatzeko erronkari aurre egin behar diogu, eta horietara modu seguruan sartzeko aukera eman, jabetza intelektualari buruzko legedia betetzeko moduan betiere.